

'BELKARA' KARABELGO AUZO ELKARTEA

Iñaki Lopetegik marka berria jarri du Karabelgo lasterketan

■ Nesketan Eider Goikoetxea izan zen azkarrena ■ Hotz egin arren lagun askok parte hartu zuen atzoko probetan ■ Helduen probak 8.300 metro zituen ■ Marrazki eta idazlanen sariak ere atzo eman zituzten.



Korrikalari gaztetxoak irteeran, erdi hotzak artean. Gazte asko izan zen Karabelgo probetan, atzo.

IÑAKI Lopetegik marka berria jarrita irabazi du aurtengo Karabelgo lasterketa. 27 minutu eta 15 segundo behar izan ditu ibilbidea egiteko. Bigarren Juan Mari Ignacio gelditu da (30'33'') eta hirugarren Felix Merino hernaniarra (30'40'').

NESKETAN, HERNANIARRA NAGUSI
Eider Goikoetxea 33 minutu eta 50 segundo behar izan zituen 8.300 metroak egiteko. Bigarren Eva Esnaola gelditu da (34'20''); eta hirugarren Izaskun Santana (39'20'').

Antolatzaileak gustora daude jendearen erantzunarekin, baina, datorren urterako klubaren laguntza eskatu

dute. Ez antolatzen bakarrik, proba girotzeko ere bai.

AMAIUR LARRARTE ETA LAURA MOREJON IDAZLE ONENAK


Gazteentzako idazlan lehiaketan Hernaniko pertsonaia bati buruz zeukaten idatzi beharra. Euskaraz Amaiur Larrarte Arbiolen irabazi du; bigarren Gari-koitx Iturriotz; hirugarren Maria Carpintero; laugarren Garbiñe Peñakoba gelditu da; eta bosgarren Ane Lujanbio. Gaztelarazkoetan lan bakarra aurkeztu zen. Saritua Laura Morejon Martin izan da. Aurten ez da idazlan asko aurkeztu, eta

arduradunek dei egiten die herriko gazteei hurrengo urterako animatu daitezten.

PINTURAN, IRATI UGALDE ONENA

Larunbatean egin zuen hotzarekin ez zen xamurra txukun pintatzea. Kondizio zail horitan onena Irati Ugalde Or-

mazabal gelditu zen; bigarren Maitane Merino Roseo; hirugarren Ibane Aizpura Perez; eta laugarren Elena Iruin Amatriain. □



Irabazlearen marrazkia.

SORGINTXULO

Txistorrada, ostiralean

■ SORGINTXULOKO auzo elkarteak txistorrada antolatu du, Santo Tomasak direla-eta. Datorren ostiralean izango da, arratsaldeko 19:00etan, auzoan bertan. Bizilagun guztiei hurbiltzeko dei egin diete antolatzaileek. □

IÑAUTERIAK

Gaur bukatuko da ekintzen berri emateko epea

■ UDALEKO inprimakiak bete behar dira Inauterietan ekintzaren bat egiteko. Gaur da azken eguna. Udaletxeko erregistroan, goizeko 09:00etatik 13:00etara. □

AURREKONTUAK
EZTABAIDAN

Asteazkenean bigarren bilera

■ UDAL gobernu taldea, herritarrekin eztabaidatzen ari da 2202ko aurrekontuetako inbertsioak. Etzi izango da bigarren bilera, 19:30etan, udaletxean. Herritarren proposamenak jasoko dira. □

Xenon
Hernani
Telemar
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

AMD XP 1500
80 GBko diskoa,
512 MBko memoria,
17"ko monitorea..
166.386 pta + %16 a Bez.
Beste hainbat ordenagailu
49.900 ptatik . 3 urteko garantia.

Xarobe
DELICATESSEN
SINCE 1983
Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

Skoda Octavia Combi 4X4 .
Obsesionatzen gaituzte teknologiak eta seguritateak gurpiletako trakzioa Haldez sistemarekin, eta gidariaren nahiz ondokoaren aire-poltsa gaitu toki zabalak: 1.412 litrorainoko tokia eta leku zabala bidaiariarentzat. Erakartzeko sunak: serieko osagaian sartuak daude Cl: MSF zen tegi eros

MENABI
Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa - Donostia Tel. 943 40 42 43

OINDI

taberna

**NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509**

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

BERTSOLARITZA -EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA-

Maialenek txapela garesti jarri zion Egañari

■ Mendiluze hirugarren gelditu zen saio borobila eginda ■ Irazu zortzigarren izan zen.

ASPALDIKO bertso finalik onena juzgatu zuten askok (gehienez), atzokoa. Belodromoa lepo, giro ezin hobe eta bertsolariak ere puntu puntuan. Andoni Egañak irabazi zuen txapela (1922 puntu), saio erregularra eginda. Bigarren Maialen Lujanbio gelditu zen (1906 puntu). Hernaniarrak saio ikuskarria egin zuen eta txapelduna nor zen esan arte nahiko duda bazen jende artean. Mendiluze ere kategorian aritu zen (1274 puntu. Lehen biak baino 11 bertso gutxiago). Irazu zortzigarren gelditu arren ondo aritu zen, baina, irregular.



Maialen eta Egañak, buruz-burukoan, jendea zutik jarri zuten.

Umeentzako saioa asteazkenean aurtengo 'Bertso Lata' hasteko

SEIGARREN Bertso lata etzi hasiko da. Umeentzako saioa izango da lehenengoa. Jon Maia, Nerea Elustondo eta Gaztelumendi anaiak saiatuko dira gazte txoen atentzia be-

renganatzeko. Asteazkenean, arratsaldeko 16:00etan, Biterin.

XÜBEROAKO KANTUAK
Datorren larunbatean (hilak 22) Xüberoako kantariak izango

ditugu Hernanin: Dominika eta Niko Etxart aita-semeak eta Larralde etorriko dira. Arizmendi jatetxean gaueko 21:00-etan. Sarrerak Aralar eta Garin tabernetan 2.500 ptan. □

Txistorrada eta txorimalo lehiaketa Gazte Txokoan

■ GAZTE Txokoak ekintzak pronto ditu, Gabon buelta honetarako ere. Aste honetan Txistorrada eta Txorimalo lehiaketa izango dira ostiral arratsaldean. Gainontzean zinea topagunea eta Molotoff irratiko saioak. Eta igandean lokala dekoratzera! Olentzerori etorrera ona egiteko. □

Eguna	Ekintza
18	Zinea
19	Topagunea
20	Irrati tailerra
21	Txistorrada Txorimaloak
22	Topagunea
23	Lokala dekoratu

ERREMONTA

Xabier Agilar Gipuzkoako txapeldun,

■ XABIER Agilar hernaniarrak Gipuzkoako txapelketa irabazi du Juaristi oriotarrarekin. Finala 35-34 irabazi zioten Gaztelekuko bikoteari. □

FUTBOLA -GORENGOEN MAILA-

Hernanik 0-1 galdu zuen, ondo jokatu arren

■ OSO partidu ona jokatu zuten hernaniarrek, atzo, Zubipen. Elgoibarrek laugarren minutuan sartu zuen gola, eta hortik aurrera ez ziren beren zelaitik atera. Hernaniarrak eginalak egin zituzten, baina, ez zuten suerterik izan. Arbitroak Hernaniko bi bidali zituen, "kulparik gabe" bigarren entrenatzailearen ustez.

WATERPOLOA -EUSKAL A LIGA-

Hernanik 5-5 enpatatu zuen, garaipena eskuan izanda

■ MUNGIAKO taldeak azken momentuan enpatatu zuen partidua. Hernaniri ondo datorkio puntu hau, baina, biren esperantzan egonda, "gutxitxo bezela" geratu zaie. □

ESKUBALOA -EUSKAL LIGA-

Hernani nagusi, Bizkaian

■ HERNANIKO eskubaloi taldea goi postuetan da aurtun ere. Atzo ere ez zuten punta-puntako partidurik jokatu, baina, nagusi izan ziren San Adrianen: 20-26. Kontratakea izan zen hernaniarren arma nagusia.

ERRUGBIA -EUSKAL LIGA-

Etxekoak erraz nagusitu ziren

■ HERNANIK partidu garrantzitsua zuen atzo Landaren. Mungiari 35-17 irabazi eta sailkapeneko erdi aldean dira dagoeneko. Datorren astean Gernikari irabaziz gero, goi postuetan sartuko dira.

IRRATIAK

(E.M. 99,2) 11:40: Gestoretako arduradunekin Eguberrietako azokari buruz
12:15: Bertso finalaren inguruan hitz egingo dute 12:35: Bertso Lataren nondik norakoak azalduko dituzte.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak:
943 550093
► Udaltzaingoa:
943 333288
► DYA:
943 464622
► Anbulatorioa:
943 557750
► Jokalari anonimoak
943 331103

FARMAZIAK

► Egunez: Irigoien
Elkano 2
☎ 943 552087
► Gauez: Irigoien
Elkano 2
☎ 943 552087

ASTEARTEA

► Egunez: Aizpuru
Labunbe Berri 11
☎ 943 553582

► Gauez: Aizpuru
Labunbe Berri 11
☎ 943 553582

ASTEAZKENA

► Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933

► Gauez: Diaz
Andoain. Nagusia 19
☎ 943 592057

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	EMAITZAK	WATERPOLOA	EMAITZAK
Gorengo maila	Hernani 0-Elgoibar 1	Euskal Herriko Liga	Hernani A 5-Sestao 5
Emakumezkoen liga.	Usurbil 2-Hernani 4	Euskal Herriko L. Emakumeak.	Leioa 9-Hernani 7
1. Erregionala	Behobia 1-Hernani 1	Euskal Herriko L. 2.maila	Leioa 10-Hernani 8
Gazteak. Liga Nazionala	Asti Leku 2-Hernani 3	PELOTA	
Gazteak. Ohorezko liga	Beasain 2-Hernani 3	Erremontea	Agilar-Juaristi 35/ Gazteleku 34
Haurrak. Ohorezko liga	Hernani 2-Real Sociedad 3	Eskuz Banaka Kadeteak	Intxaurren 22-Arrietan 2
BOLEIBOLA		Paleta goma. Jubenilak (finala)	Burutaran-Balero 30/Usandizaga-Lujanbio 18
1. Autonomika	Hernani 3-C.V.Sestao 1	Kronika Txapelketa	Arano-Gorka 22/Aritz-Mikel 12
ERRUGBIA		Kronika Txapelketa	Garmendia-Zabala 22/ Pello-Alex 2
Seniorra. 1. maila	Hernani 35-Mungia 17	Eskuz binaka jubenilak	Otegi-Leonet 22 / Kurpil kirolak 19
Jubenila. Euskal liga	Hernani 48-Elorrio 0	Eskuz binaka jubenilak	Alvarez-San Sebastian 22-Añorgak 15
Kadetea. Euskal liga	Getxo 22-Hernani 27	Eskuz binaka kadeteak	Añorgak 22 / Ezeiza-Gorrotxategi 18
ESKUBALOA		Eskuz binaka kadeteak	Huizi-Zurutza 21 -Aurrera 22
Euskadiko Liga	San Adrian 20 - Hernani 26		

ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

OKINDEGIA ANTZIOLA

Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

Ibai mendiko Kirolak

Avantaja. Mendia. Kirol materiala...

Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI

Ibai mendiko Kirolak

Nagusia 10
Tel: 943 590372
ANDOAIN

ZINGI-ZANGA
Jatetxea

Florida 54
Tel: 943 33 03 97
HERNANI

• Eguneroko menua •

Hernaniko Kronikaren laguntzaile:

ORAUÑE PROMOZIOAK

Urdin

Osagarri, opari edo lurrinen bila bazabiltza, Montebideo kalean aurkituko duzu orain behar duzuna: Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar.

URDIN Osagarri Denda

Montebideo kalea 1 (EPO eta atletismo pista artean) - HERNANI